



Udalak lehiaketara atera dituen kanpo espazioen ANALISIA

Ikastolak 2023-2024 ikasturtean TIPIren laguntzaz egindako [hausnarketa ondorioak](#) kontuan hartuta hauek dira kanpo espazioak kontuan hartu beharko lituzkeen kontzeptuak:

- Jolas eremua izatea.
- Berdegune asko eta integratua. Jolasaren parte eta erabilgarria izatea.
- Espazio zabala edo zabalgunea izatea: erabilera anitzeko
- Gradak, harmailak, komunitatearen elkarbizitzarako txokoak.

Jarraian udalak ideien lehiaketara aurkeztu dituen [bost proiektuak](#):

1. ORIOKO PLAZAN






Costas dela eta, ezin da estalkirik jarri, beraz proiektua ez da zehatza.

ORIOKO PLAZAN

POSITIBO-ALDEKO	NEGATIBO-HOBETZEKOAK
Zabalgunea du	Zabalgunea erdigunean
Berdegune pixkat	Jolasgunea falta, motz
	Gaur egun daukagun eredua
	Estalkiarena ez da erreal
	Iparraldeko patioko berdegunea falta




2. BETEHUTS



SECCIÓN LONGITUDINAL / EBAKETAK



IDENTIDAD CONSTRUCTIVA / ERAKUNTZA XEHETASUNAK





BETEHUTS

POSITIBO-ALDEKO	NEGATIBO-HOBETZEKOAK
Zabalgunea	Zementu asko
Altura ezberdinen jokua-erronkak	Zabalgunea erdian
Txoko ezberdinak sortzen ditu	Berdegunea adornokoa dirudi, zapaldu ezin dena, oso sinbolikoa
	Jolasgune eskasa
	Iparraldeko patioa aldapan eta adornoko elementuak



3. GINKGO

Costas dela eta, ezin da estalkirik jarri, beraz proiektua ez da zehatza






GINKGO

POSITIBO-ALDEKO	NEGATIBO-HOBETZEKOAK
Grada-harmaila estiloa eta hauen orientazioa erriyotik babesteko	Estalkiak ez dira posible izango costas dela eta
Zabalgunea	Berdegune eskasa
	Jolasgune eskasa
	Zabaldunea erdigunean
	Iparraldeko patioa



4. BIRIBIL

Costas dela eta, ezin da estalkirik jarri, beraz proiektua ez da zehatza






BIRIBIL

POSITIBO-ALDEKO	NEGATIBO-HOBETZEKOAK
Zabalgunea ez dago erdian	graderia, harmaila altuagoak eta aprobetxagarriagoak
Zona-espazio bereizketak	Parkea eta zona irekia, erronka bidezko egiturekin edo harmailekin gehiago bereiztu beharra.
Berdeguneak ditu eta itzaletako aukera	Iparraldeko patioko berdegunea
Arranpla integratuagoa	Berdegunean zapaltzeko moduan izan daitezela, erabilgarria jolas gune bat
Jolasgunea erdigunean	

5. ATZERA BEGIRA AURRERA EGITEKO





ATZERA BEGIRA AURRERA EGITEKO

POSITIBO-ALDEKO	NEGATIBO-HOBETZEKOAK
Berdegune asko	Jolas ordurako zaintza zailtasun handiak
Herritar bezala aukera polita	Berdegunea agian bidea markatzeko da eta ez hainbeste erabilgarria?
Iparraldea eta plazoleta uztartuta	Jolasgune gutxi
	Bankalak falta
	Zabalgunea falta ekintza ezberdinetarako

AUKERA GUZTIAK AZTERTU ONDOREN:

IKASTOLAK **BIRIBIL PROIEKTUAREN ALDE** EGITEKO HAUTUA EGIN DU.

1. KONTZEPTUETAN OINARRITUTA, GURE HAUSNARKETAREN KONTZEPTU GEHIENAK BARNEBILTZEN DITU
2. HASIERA BATEAN PROIEKTUA ERAKARGARRIA EGITEN EZ DEN ARREN, IDEIEN LEHIAKETA BAT DENEZ, ONDOREN PROIEKTU HONEN GAINEAN MODIFIKATZEKO AUKERAK EMATEN DITU.



Hauxe izango da familiei banatuko zaien infografia Ikastolaren iritzia jakinarazteko:



ETA IKASTOLAK ZER DIO?

Ikastolako plazoleta

lazko ikasturtean Ikastolako komunitatean egindako gogoeta partekatuaaren arabera, Ikastolako kanpo espazioak honako ezaugarriak izan beharko lituzke:

- ✓ Berdeguneak izatea
- ✓ Jolas gune eta erronken eremua izatea
- ✓ Zabalgune bat izatea
- ✓ Bilguneak eta harmailak izatea

eta zergatik **BIRIBIL**?

Idela lehiaketa bat denez, proiektuak ez dira definitiboak eta ez dira irudietan ikusten diren bezala izango. Adibidez, "Costas" dela eta, ez da inongo proiektuetan estalperik jartzerik izango, edo kotak kontuan hartuta, mugak egon daitezke.




BIRIBIL JOLASGUNE ETA BERDEGUNA

- ▶ Haurren jolasgunea erdigunean kokatzen da, protagonismoa haurrari emanez. Berdegunea espazio guztian zehar zabalduta dago, haurrak zein familiak naturarekin kontaktuan egon daitezen.
- ▶ Eta etorkizuneko proiektu honetan zer hobetu daiteke? Gure eskaera berdegune erabilgarriak eta haurrentzat erronka guneak sortzea izango da.

BIRIBIL ZABALGUNE

- ▶ Haurren jolasguneaz gain, zabalgune bat eskaintzen du jolas liberako zein bestelako ekintzak egin ahal izateko. Bereizitako 3 espazio elkarbizitzen.
- ▶ Eta etorkizuneko proiektu honetan zer hobetu daiteke? bi espazioak elkarren artean bereiztuko dituen azpiegituraren bat (harmailak, eserlekuak, jolaserako erronka guneak...) jartzea



BIRIBIL HARMAILAK

- ▶ Ikastolako plazoleta eta iparraldeko patioak familien elkargune dira. Proiektuak eserleku eta harmailak aurreikusten ditu.
- ▶ Eta etorkizuneko proiektu honetan zer hobetu daiteke? Plazoletan biltzen den pertsona kopurua ikusita, ideian dauden baina harmaila egokiagoak eta kopuruz ere gehiago jartzea, itzala kontuan hartuz